

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure enpresa aurrera eramateko eta gainera etekin handiagoa ateratzeko, hortz eskuilekin zerikusia duen beste enpresa batekin eta dentistekin aliatzea egokia iruditzen zaigu. Enpresa honek, bere izena daramaten hortz eskuil gehigarri edo osagaiak hornituko dizkie gure erosleei. Aliantza moduko honek bi enpresei emango dizkigu irabaziak, eta bioi onurak ekarriko dizkigu.

Guk gure katalogoan, adibidez, gure bizikletak hotzak garbitzekoa erakusteazgain beste enpresa honen zenbait produktu ere erakutsiko ditugu, hortzetako pasta edo enjuage bokala edo beste zenbait gehigarri hortzetako garbiketa obe bat lortzeko. Osagarri hauek, gure produktuaren ondoan saltzeagatik, gure bezero asko beste enpresa honetako produktuak erostera bultzatuko dituela espero dugu. Honek, alde batetik, aliatu garen enpresari onura ekarriko dio. Izan ere, honi esker, bere produktua bere kabuz patrozinatzearekin lortuko dituzten bezeroez gainera, gure laguntzarekin erosle gehiagotara iritsi ahalko dute. Beste aldetik, aliantza honek guri ere onura handia ekarriko digu. Izan ere, beste enpresa honek guri esker saldutako produktuekin ateratako irabazien zati bat guretzat izango da, eta guk beraien izena erakusteagatik eta beraien produktua gure laguntzaz bezeroei eskaintzeagatik diru bat irabaziko dugu.

Nagusitasuna, noski, gure produktuari emango diogu eta hau izango da gehien patrozinatuko duguna. Webgunean eta katalogoan, adibidez, gure hortzak garbitzekoari emango diogu garrantzi handiena, eta baita publizitatea egiterakoan ere. Webgunean eta katalogoan, hala ere, aliatu garen enpresa honen produktuak erakutsiko ditugu, gure hortz garbitzekoaren atala baino txikiagoa izango dena eta garrantzi gutxiago emango dioguna. Publizitatean berriz, gure produktua bakarrik erakutsiko dugu, beste enpresako produktua saldu nahi dugunaren zati txiki baita.